



Kaleberri, 12
31013 Berriozar
(Navarra/Nafarroa)
Tlf. 948 300 007
Fax: 948 300 950

ANTSOAINGO, BERRIOBEITIKO, BERRIOZARKO, ITZAKO ETA TXULAPAINGO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Deialdia, hautaprobe bitartez izangaien zerrenda bat osatzeko, administrari laguntzailea lanpostuan aldi baterako kontratuarekin aritzeko, Antsoaingo, Berriobeitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen zerbitzura

1.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da izangaien zerrenda bat osatzea, hautaprobe bidez, Antsoaingo, Berriobeitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean administrari laguntzailea lanpostuan aritzeko, aldi baterako kontratuarekin, lan edo administrazio erregimenean, premien arabera. Deialdi hau egingo da Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuan, 42.2 c) artikuluan, aldi baterako langileen hautapenari buruzkoan, aplikatzekoak diren gainerako arauetan eta deialdiaren oinarrietan ezartzen denaren arabera.

1.2. Gauzatu beharreko eginkizunek barne hartuko dituzte administrari laguntzailea lanpostuak berezko dituen zeregin guztiak eta bere kategoriak eta mailak berezko dituzten beste eginkizunak eta bai berariaz agintzen zaizkionak ere.

Eginkizun horiek gauzatzeko, baliteke ibilgailu partikularra eskuarki erabili behar izatea, Mankomunitatea osatzen duten entitateen lurralde esparruko herrietara joateko, Zerbitzuari lotutako laguntza emateko.

1.3. Lanpostua D mailako lansariez hornituko da, uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako lansarien behin-behineko erregelamenduan eta gainerako xedapen osagarrietan erabakitakoaren arabera; bestetik, Mankomunitateak une bakoitzean ezarri eta plantilla organikoan jasotzen diren osagarriak izanen ditu.

1.4. Lanaldiaren erregimena zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta eskumena duten administrazio organoek edozein unetan aldatu ahal izango dute.

2.- Betebeharrak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko beste edozein estatu kideakoa izatea. Orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuak herritarren ezkontideek hartzen ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izaki, haien kontura biziz gero. Orobat aplikatuko zaie, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio librea onartzen duten herrialdeetako biztanleei.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskola Graduatu titulua izatea, edo DBHko Graduatu titulua, edo Lehen Mailako Lanbide Heziketako titulua, edo Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua edo titulu baliokide bat izatea. Atzerrian lortutako titulua izanez gero, epe hori betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

Nazionalitate espainiarra ez duten izangaiek frogatu beharko dute beren Estatuko Funtzio Publikoan sartzeara eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik ez dutela.

f) B motako gidabaimena indarrean izatea.

2.2. Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoen kasuan, itunaren frogagiria aurkeztu beharko da.

2.3. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak, bai eta hautapen prozesuak eta kontratazioak iraun bitartean ere. Gerora horietakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da deirik ez egiteko, harik eta arrazoi hori desagertu arte.

2.4. Hirugarren oinarrian xedatutakoa izan ezik, hautaprobak gairatzen dituzten izangaiek frogatu beharko dituzte betebeharrak, 7. oinarrian aurreikusitako epe eta moduan.

3.- Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Antsoaingo, Berriobeitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, kaleberri kalea, 12 31013 Berriozar, Antsoaingo gizarte zerbitzuan dagoen erregistroan, udaletxeko plaza, 3 31013 Ansoáin, telematikoki, erregistro elektronikoen bidez (<https://sedeelectronica.manserso.org>) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako bideetako bat erabiliz, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hamar egun balioduneko epean. Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da luzatu.

Eskabideetan atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzendu ahal izango dira, noiznahi.

3.2. Eskaerak Mankomunitate honen Erregistroan ez (ez Berriozarren ez eta Antsoainen ere), beste batean aurkezten direnean, eskatzaileak haren kopia eta sartzeko baldintzak betetzen dituela frogatzen duten agiriak, zigilua eta erregistroko sarrera-data dituztela, serviciosocial@manserso.org helbide elektronikora igorri beharko ditu, betiere aurkezteko epearen barruan. Nahitaezkoa eta saihestezina izango da agiri horiek posta elektronikoen bidez bidaltzea, hautapen prozeduraren izapidetzeak aurrera egin dezan, baina ez du erabateko baliorik izango Mankomunitateko Erregistro Orokorrean jatorrizko ereduaren araberrako eskabidea aurkezten ez den bitartean.

Igorpen prozedura hori bete ezean izangaia hautapen prozeduratik kanporatuko da, baldin eta erregistratutako eskabidea izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren argitalpenaren ondotik iristen bada.

3.3. Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar diezazkioten eskabideari, ziurtatu eta Mankomunitate honen Erregistro Orokorrera bidali aurretik. Hartan, izangaiek adierazi beharko dute betetzen dituztela deialdi honetan parte hartzeko baldintza guzti-guztiak, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

3.4. Eskabideak deialdi honen I. eranskineko ereduari jarraituz bete beharko dira. Eredu hori Mankomunitatearen egoitzan eskuratuko da kaleberri kalea, 12 (Berriozar) eta bai, Interneten bidez, www.manserso.org/eu/empleo-publico helbidean, eta hartan izangaiek adierazi beharko dute baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

Deialdiaren testu osoa eskuragarri egongo da Mankomunitatearen webgunean: www.manserso.org/eu/empleo-publico.

Behar bezala betetako eskabideari dokumentazio hau gehituko zaio:

a) Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideetarako 3,00 euro ordaindu izanaren frogagiria, ES44 2100 5184 5521 0046 1264 zenbakiko kontuan diru hori sartuta. Bertan agertuko dira izangaiaren izen-abizenak eta "administrari laguntzailea" kontzeptuan.

b) Nortasun agiri nazionalaren kopia edo izangaiaren nazionalitatea nahiz nortasuna egiaztatzen duen beste agiri baliokide batena.

3.5. Desgaitasun aitortua duten izangaiek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izango dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera desgaitasuna dutela frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, eskumena duen organoak emandakoa.

3.6. Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izango, eta ordura arte haiek gauzatutako egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, eskabidean egindako faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

3.7. Azterketa-eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingen da.

Izangaiei ez zaizkie tasak itzuliko, baldin eta baztertutak izan badira beraiei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik.

3.8. Gainerako betebeharren egiaztatgiriak prozesua gainditzten duten izangaiek aurkeztu beharko dituzte, deialdi honen 7. oinarrian ezartzen den epean eta moduan.

4.- Onartutakoan eta baztertutakoan zerrenda.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Mankomunitateko buruak ebazpena emango du onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Mankomunitate honen webgunean argitaratzeko aginduko du: (www.manserso.org/eu/empleo-publico).

Ez badago izangai bazterturik, zuzenean onetsiko da onartuen zerrenda behin betiko moduan.

4.2. Izangai baztertuek hiru egun balioduneko epea izango dute, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea amaitutakoan eta horiek ebatzi ondoren, Mankomunitateko buruak ebazpena emango du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta webgunean (www.manserso.org/eu/empleo-publico) argitaratzeko aginduko du. Gainera, probak non, noiz eta zer ordutan hasiko diren ere adieraziko du.

4.4. Onartuen zerrendan agertzea ez da aski ebazpen honen bitartez abiatzen den prozeduran eskatutako baldintzak betetzen direla onartzeko. Hautapen prozedura gainditu eta dokumentazioa aurkeztutakoan, baldintzaren bat betetzen ez dela ikusiz gero, izangaiek prozeduran parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

4.5. Izangai onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzearekin egintzat joko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.b) artikuluari jarraituta.

5.- Epaimahaia.

5.1. Kalifikazio-epaimahaia izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi baino lehen izendatuko da. Kide-kopurua bakoitia izanen da, gutxienez hiru, eta horien ordezkoen kopuru bera izendatu beharko da. Izendapen hori webgunean (www.manserso.org/eu/empleo-publico) argitaratuko da.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da, buruak deialdia eginda, eta eratu eta jardun ahal izateko kideen gehiengo absolutuak agertu beharko du gutxienez.

5.3. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

5.4. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan edo denetan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emango diote laguntza epaimahaiari.

5.5. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta organo deitzaileari horren berri emango diote, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean, 23. artikuluan, parte ez hartzeko aipatzen diren egoeraren batean badaude.

5.6. Izangaiek mahaikideak errekusatu ahal izango dituzte Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean, 24. artikuluan, ezarritako moduan eta baldintzetan.

6.- Oposizio-lehiaketaren nondik norakoak

6.1. Oposizio-lehiaketak fase hauek izanen ditu:

a) Oposizioaldian, proba bat egingen da, lanpostuaren funtzioak zuzen eta egoki betetzeko beharrezkoak diren ezagutzei eta gaitasunei buruz.

b) Merezimenduen balorazioko fase edo lehiaketaldian, izangaiek alegatu dituzten merezimenduen balorazioa egingen da, dagoen baremoaren arabera.

Deialdi honetako faseak hurrenkera honetan egingen dira: lehendabizi, oposizioaldia, eta hura bukatuta, lehiaketaldia.

6.2. Oposizioaldia.

Oposizioaldia 2024ko maiatzetik aurrera hasiko da.

6.2.1. Proba bakoitzerako deialdi bakarra egingo da eta izangaiek nortasun agiri nazionala, pasaportea edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute eta, eskatzen bazaie, erakutsi egin beharko dute, bestela, kanporatu eta baztertuko baitira, salbu eta zuzenbidean onarturiko beste moduren batean nor diren egiaztatzen badute egintza horretan bertan. Probetan oharretatik kopiatzeak eta beste edozein iruzur egiteak berehalako kanporatzea ekarriko du, jarduketa penalak deusetan galarazi gabe, hala behar bada.

Halaber, agertzen ez diren izangaiak kanporatuta geldituko dira.

Hautaproba egiteko, denborak eta baliabideak ahal bezala moldatuko dira desgaitasuna duten eta hala eskatzen duten izangaientzat, haien eskabidean adierazi dutenaren arabera.

6.2.2. Oposizioak proba bakar bat izango du:

Test motako proba.

Idatzita erantzun beharrekoa, epaimahaiak hasi aurretik erabakiko duen denboran. Hainbat erantzunetako galderak izango dira, test modukoak, II. eranskinetako gai-zerrendari buruzkoak. Haietatik bat bakarra izango da zuzena. Proba hasi aurretik zehaztuko dira balorazio-irizpidea eta hainbat erantzunetako galderetan akatsen penalizazioa. Gehienez ere 60 puntu emango dira. Baztertuta geldituko dira gutxienez 30 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

Behin-behineko kalifikazioak argitaratu ondoren, izangaiek 3 egun balioduneko epea edukiko dute, behin-behineko kalifikazioa argitaratu ondoren zenbatzen hasiko dena, alegazioak aurkezteko.

Geroago, kalifikazio epaimahaia ondoz ondoko iragarkiak kaleratzen joango da Oposizio-lehiaketaren garapenari buruz Mankomunitatearen webgunean (www.manserso.org/eu/empleo-publico).

6.3. Lehiaketaldia.

6.3.1. Oposizioaldiko behin betiko emaitzak argitaratzean, 5 egun balioduneko epea emanen zaie fase hori gainditu duten izangaiei, aurkez ditzaten ezarritako merezimenduak justifikatzeko agiriak.

Izangaiek aurkezturiko merezimenduak baloratuko ditu epaimahaiak, ondotik heldu den baremoaren arabera baloratu ere. Merezimendu guztiak agiri bidez frogatu behar dituzte izangaiek, jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatuak erabiliz horretarako. Horrela egin ezean, ez dira kontuan hartuko.

6.3.2. Alegatu eta frogatzen diren merezimenduak honako baremo honen arabera kalifikatu eta puntuatuko dira:

- a) Europako Erreferentzia Esparruak finkatu euskarazko A1 mailari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 0,50 puntu.
- b) Europako Erreferentzia Esparruak finkatu euskarazko A2 mailari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 1,00 puntu.
- c) Europako Erreferentzia Esparruak finkatu euskarazko B1 mailari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 1,50 puntu.

d) Europako Erreferentzia Esparruak finkatu euskarazko B2 mailari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 2,00 puntu.

e) Europako Erreferentzia Esparruak finkatu euskarazko C1 mailari dagokion ziurtagiri edo titulu ofiziala izateagatik: 2,50 puntu.

Titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkeztuz gero, epaimahaiak maila gorena duena baizik ez du baloratuko.

Euskararen jakite maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak ezartzeko, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 210/2010 Ebazpena.

Jatorrizko tituluaren edo haren kopia konpultsatuen bidez frogatu beharko dira.

Epaimahaiak noiznahi eskatu ahal izango ditu izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko azalpen eta datu osagarriak.

6.3.3. Lehiaketaldia amaituta, epaimahaiak behin-behineko zerrenda kaleratuko du Mankomunitatearen webgunean (www.manserso.org/eu/empleo-publico), izangaiek lortutako puntuazioekin. Behin-behineko kalifikazioak argitaratu ondoren, izangaiek 3 egun balioduneko epea edukiko dute, behin-behineko kalifikazioa argitaratu ondoren zenbatzen hasiko dena, alegazioak aurkezteko.

7.- Probak gainditu dituzten izangaien zerrenda eta agirien aurkezpena.

7.1. Probak amaitutakoan, epaimahaiak Mankomunitatearen webgunean (www.manserso.org/eu/empleo-publico) argitaratuko du gainditu duten izangaien proposamena, oposizio-lehiaketan lortutako azken puntuazioaren arabera, handienetik txikienera ordenatuta, eta Mankomunitateko buruari bidaliko dio, aurreko zerrendarekin eta espediente osoarekin batera.

Izangairen baten edo gehiagoren arteko berdinketarik suertatuz gero, test motako proban puntuaziorik handiena lortu dutenen alde egingo da eta, berdinketak badirau, zozketa bidez erabakiko da hurrenkera.

7.2. Buruaren ebazpen bidez onetsiko da gainditu duten izangaien zerrenda, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta; ondotik, Mankomunitatearen webgunean (www.manserso.org/eu/empleo-publico) emango da argitara, eta bost egun naturaleko epea, luzatu ezingo dena, finkatuko da, gainditu duten pertsonen Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean aurkez ditzaten deialdian exijitutako baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela frogatzen duten eta ordura arte aurkeztu ez dituzten agiriak, bai eta Mankomunitateak eskatu ahal izango duen gainerako dokumentazio osagarria ere.

7.3. Eskatzen diren agiriak epe horretan aurkezten ez dituztenak, aski justifikatutako ezinbestekoetan izan ezik, eta eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenak kanporatu egingo dira aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrendan, eta deialdian parte hartzeagatik eskubide guztiak galduko dituzte; betiere, parte hartzeko eskaera faltsutzeagatik legokiekeen erantzukizuna deusetan ukatu gabe.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira baldintza horiek, eta hautapen prozeduraren aldian eta kontratazioak iraun bitartean ere bete beharko dira.



Kaleberri, 12
31013 Berriozar
(Navarra/Nafarroa)
Tlf. 948 300 007
Fax: 948 300 950

7.4. Gainditu duten izangaien zerrenda, puntuazio handienetik txikienera ordenatua, aldi baterako kontratatuak izatekoa –zerbitzuaren beharren arabera–, 2025ko abenduaren 31an arte egongo da indarrean, aurretik administrari laguntzailea lanpostu bat betetzen bada izan ezik lan erregimen finkoan edo funtzionarioarenean, eta kasu horretan horri dagokionez baldintzek ezartzen dutenari men egin beharko zaio, eta luzatu ahal izango da Mankomunitateko buruaren ebazpen bidez.

Aldi baterako kontratatuak izateko gainditu dutenen zerrenda kudeatzeko irizpideak eta, horren aldaketak, egonez gero, Mankomunitatearen iragarki-oholean erakutsiko dira (kaleberri kalea, 12 Berriozar).

Mankomunitateko buruaren ebazpen bidez zerrenda behin betiko onesten den unean sartuko da hura indarrean eta, lehenago sorturiko administrari laguntzaileak zerrendak indarrean diren bitartean, horien ordeztu eta haien mende funtzionatuko du.

8.- Datuen Babesa.

Tratamenduaren arduraduna: Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

Datuen babesaren ordezkaria: dpd@manserso.org

Helburua: langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea.

Oinarri juridikoa: Datuak Babesteko Araudi Orokorreko 6.1.c) artikulua, tratamenduaren arduradunari aplika dakioken legezko betebeharrak bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua; 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.

Datuak gordetzeko denbora: adierazitako helburua betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira datuak, eta Mankomunitateak haiek tratatzetik eratorritako erantzukizunak izan bitartean edukiko dira. Era berean, Artxiboei eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbatze-arauak bete behar dira.

Datuen hartzaileak: datuak epaileei eta auzitegiei laga ahal zaizkie, indarrean dagoen legeria betetzeko, eta deialdian ezarritakoaren arabera kaleratuko dira.

Eskubideak: interesa duten pertsonen beren eskubideak bete ditzakete Mankomunitatearen egoitzara joanda eta datuen babesaren ordezkariaren helbide elektronikoaren bidez (dpd@manserso.org).

Era berean, interesa duten pertsonen erreklamazioa aurkeztu ahal dute Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean, idatziz, Madrilgo Jorge Juan kalearen 6ra igorrita (28001) edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es).

9.- Errekurtsoak.

Deialdi honen, haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, hautara, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.



Kaleberri, 12
31013 Berriozar
(Navarra/Nafarroa)
Tlf. 948 300 007
Fax: 948 300 950

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahalko da, deialdia egin duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik aitzina.

Berriozarren, 2024ko apirilaren 19an.–Mankomunitateko burua, Elena Ugarte Páez.